

Ikusi Estropada Akademikoaren bideoa!

2015/10/15

Lehenik eta behin **eskerrak gure ordezkari**ei.

Urriko zubia aukeratu zen estropada akademikoko ekintza denak burutzeko, marengatik aukeratu bazen ere, ez zen momenturik egokiena gure arraunlarientzat, hilabete bat dute opor beraien entrenamenduetan eta zubia hau kanpora joateko aukera paregabea bai zen.

Horrela, ostiralean Donostiako Aquariumean egin zuten unibertsitate ezberdinetako errektore ordeek, zuzendariak eta agintari ezberdinek prentsaurrekoa, guztiek antolatzaile eta ikasleei eskerrak emateaz gain, unibertsitate ezberdinen elkartpuntua dela goraiatu zuten.



Larunbatean mintegiak eman ziren. Huetan, arraunaren biomekanika eta fisiologiaz hizegiteaz gain, arraunaren egungo egoeraz ere mintzatu ginen.



Igandean izan zen Estropadaren momenturik esanguratsuen, non EHU/UPV, U. Deusto, U. Navarra (Tecnum), UPPA (Frantzia) eta MONDRAGON UNIBERTSITATEko ikasleek lehiatu ziren 2500 metroko jeitsiera eta 500 sprintak eginez.



Mutiletan, frantzesak izan ziren nagusi bi probetan eta nesketan berriz U. Deustoko ordezkariak.

Estropadaren bideoa hemen ikusi dezakezue.

Esan bezala, eskerrik asko bertan lagundu zuten guztioi, arraunlari, klub eta erakundeei.

